


## Baliozko proposamena

“Titabaten” enpresak bezeroei hainbat onura eskaintzen dizkie, esate baterako:

- Orokorrean, herritarrei erosketak egitea errazten die, batez ere **denbora kudeatzeko arazoak** dituztenei, edo erosketak egiteko **denborarik ez** dutenei eta baita etxetik irtetzeko zailtasunak dituznenei ere, elbarrituei edota pertsona nagusiei. Lea-Artibai amankomunitatean aurkitzen diren dendetako produktu guztiak, “klik” batzuekin online erosteko eta gure langileek, erosleek nahi duten orduan, nahi duten tokian uzten baitizkiegu eskatzen duten guztia.
- **Herri txikietako dendak bultzatzea** bilatzen dugu eta multinazional handiei aurre egiten ahalegindu. Hurbiltasuna, erosotasuna eta erraztasuna izango dira gure indarririk handienak enpresa handien aurka.
- Dendak bultzatzeaz gain, bide batez gazteen arteko **langabezia tasa gutxitzea** lortu nahi dugu, hauek kontratatuz banatzaile gisa.
- Honez gain, aplikazioak beste **apartatu** bat izango du, non bertan, erabiltzaileek erabiltzen ez dituzten produktuak salgai jartzeko aukera izango duten besteek erosi ahal izateko. Modu honetan, **bigarren eskuko arropen salerosketa** bultzatzea dugu helburutzat, moda azkarraren industriak eragiten duen **kontaminazioaren aurka borrokatzeko**.
- Azkenik, gure enpresak arropen salerosketarekin mozkinik lortzea helburutzat ez duten haientzat, hauek **behartsuenei laguntzen dien elkarteei emateko aukera emango die**. Honela, Lea-Artibai amankomunitateko biztanleek bertako behardunei laguntzeko modu bat izango dute.



Onura guzti honek dira gure bezeroak “Titabaten” aukeratzearen arrazoiak eta lehiakideengandik bereizten gaituena.